

HEZKUNTZA SAILAREN MURRIZKETA POLITIKAREN ONDORIOAK HEZKUNTZA PUBLIKOKO IKASTALDEKO IKASLE KOPURUAN ETA IRAKASLE LANPOSTUETAN, ETA ELAREN PROPOSAMENA

1.-EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA POLITIKA


1.1. Matrikulazio eta ratioen eboluzioa 2003/2004tik hona hezkuntza publikoan eta gobernu ezberdinen politikak.

2003/04 ikasturtetik hona, hezkuntza publikoan, matrikulazio datuei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu goranzko eboluzio jarrai bat izan duela. Aldiz, ikastaldeen sorrerak ez du bilakaera bera izan, hau da, ez dira matrikulazio gorakadak eskatzen zituen ikastaldeak (eta ondorioz lanpostuak) sortu. Eta honek, ikasleak ikasgeletan pilatzea, ratio errealak igotzea eta ehunka lanpostu “aurrezte” eragin du.


Hala ere, matrikulazioaren gorakada jarraia izan den bitartean, ratio errealaren gorakadak ez du urte guztietan goranzko eboluzio bera izan. 2003/04tik 2005/06ra beherantz egin zuen ratioak matrikulazioa gorantz zihoan bitartean. Ez da igotzen hasten 2006/07 ikasturtera arte, eta ratioaren igoera bortitzena 2009/10etik aurrera izan da.

Kontutan hartzen badugu urte hauetan gobernu ezberdinak izan direla, esan dezakegu gobernu bakoitzak ratio politika ezberdin bat aplikatzea erabaki izan duela. Ibarretxeren legealdian, arlo ezberdinetan politika neoliberalak ezarri arren, ratioek beherantz egin zuten matrikulazioa gorantz zihoan bitartean. Aldiz, Patxi Lopezen gobernuarekin ratioen igoera bortitzena hasten da eta Urkulluren gobernuak jarraipena ematen dio ratioen muturreko politika honi. Beraz, egun gobernuan dagoen EAJ alderdiak berak ere politika ezberdinak egin izan ditu beste garai batzuetan.

EAE



EAE



1.2.Hau posible egiteko legean egin dituzten aldaketak.

Gelako ikasle ratioen muturreko politika hau aurrera eraman ahal izateko, hainbat dekretu onartu dira urte hauetan zehar, Eusko Jaurlaritzari ikasleen pilaketa hau egiteko gero eta marjina handiagoa utzi diotenak.

2007an, 175/2007 Dekretuan, lehen eta bigarren hezkuntzako ratio maximoez hitz egiten da eta lehen aldiz gehienezko ratio hori %10ean gainditzeko baldintzak ezartzen dira. Lege honek, aukera hori erabili ahal izateko bi salbuespenezko egoera eta muga bat ezartzen ditu. Bi egoera edo salbuespen horiek kurtso bat errepikatzen duten ikasleak eta ikasle berantiarrak (behin kurtsoa hasita iristen diren ikasleak) dira, eta muga, etapa osoko bataz besteko gelako ikasle kopuruak ezin duela gehienezko ratio hori gainditu.

2008an, maila bereko beste dekretu batek, 35/2008ak, aurrekoak ezartzen zuen muga hori desagerrarazten du. Hau da, hemendik aurrera posible izango da bi egoeren baitan (errepikatzailen eta ikasle berantiarren kasuan) ratio maximoak %10ean gainditzea, nahiz eta etapako bataz besteko gehienezko ratioaren gainetik egon.

2015ean, ELA sindikatuak lege hau aprobetxatuz egiten ziren tranpak eta irregulartasunak epaitegietara eraman ostean, hirugarren dekretu bat onartzen da, 236/2015 Dekretua, 2007koa bertan behera uzten duena eta Eusko Jaurlaritzari oraindik ere berme juridiko handiagoa ematen diona ratioen muturreko politika hau egiten jarraitzeko, inolako oztoporik legalik gabe.

Azkenik, 2018ko urtarrilean, Jaurlaritzak laugarren dekretu bat onartu zuen, 1/2018 Dekretua. Dekretu honek, alde batetik Haur Hezkuntzara zabaltzen du %10eko ratio gorakada gehigarriko aukera. Eta bestetik, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan %10eko ratio igoera gehigarri hau egin ahal izateko beste bi

salbuespenezko egoera gehitzen ditu: genero biolentzia pairatzen duten familien kasurako eta familia adopzio edo harrera kasuetarako.

Gelako ikasle kopurua handitu eta ondorioz ikasgelak eta lanpostuak murrizteko muturreko ratio politika honek berez suposatzen duenaz harago, ELAtik bereziki larria iruditzen zaigu murrizketa politika hau egiteko eta ikasleen pilaketa justifikatzeko bete beharreko salbuespen hauek ikasle kolektibo konkretu batekiko dakarten estigmatizazioa. Izan ere, errepikatu duten ikasleak, behin kurtsua hasita iristen direnak (gehienetan etorkinak), adopzio edo harrera prozesu bat bizi berri dutenak edota familian genero biolentzia pairatzen dutenak bihurtzen dituzte, finean, geletako pilaketen “erantzule”.


Aurretik aipatutako matrikulazio eta ratioen eboluzioari begiratzen badiogu, ikusiko dugu 2007tik aurrera hasten dela ratioa igotzen %10eko salbuespenaren onarpenarekin batera, eta 2008/09tik aurrera dela, bigarren dekretu horretatik aurrera, igoera bortitzena hasten den momentua. Hau da, argi eta garbi ikusten da dekretu hauek onartzearen asmoa zein zen: ratioen muturreko politika bat egiten hasteko erabakia.

1.3. Krisi urteetan (2009tik hona) hezkuntza inbertsioaren beherakada eta zorraren ordainketaren gorakada.


Zein da ratioen muturreko politika honen atzean dagoen helburua? ELAren ustetan arrazoa ekonomikoa da eta datuek hala erakusten dute. Eta zertaz baliatu dira horretarako? Krisi ekonomikoaren aitzakiaz.

Eusko Jaurlaritza krisiaren aitzakiaz baliatu da zerbitzu publikoak oro har, eta irakaskuntza publikoa konkretuki deskapitalizatzeko, zorraren ordainketaren mesedetan adibidez, aberastasunaren gero eta banaketa bidegabeago bat bultzatuz.

Krisiaren hasiera 2009an kokatzen badugu, eta BPGarekiko hezkuntza inbertsioari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu beheranzko joera jarraia izan duela. Horrela, 2009an hezkuntza inbertsio publikoa %4,3koa bazen, 2018an %3,5ekoa izan da. Hau da, Jaurlaritzak hezkuntzan 2009an inbertitzen zuen ehuneko berdina inbertituko balu, 596 milioi euro gehiago bideratu beharko zituzkeen aurten. Eta hala ere urrun egongo ginateke Europar Batasuneko batz bestekoaz, eta zer esanik ez UNESCOk gomendatzen duen BPGaren %6ko inbertsioetik (1855 milioi euro gutxiago). 2015eko datu konparatuei begiratzen badiegu, ikusiko dugu Europako azken muturrean gaudela hezkuntza inbertsio publikoan. Urte horretan EBko batz besteko inbertsioa BPGaren %4,9a bazen, EAeko %3,7koa izan zen, Errumania bakarrik zegoelarik EAEn atzetik BPGaren %3,1eko inbertsioarekin. Hau da, batz bestekoarekiko 1,2 puntu azpitik geunden EAEn, eta EJK ehuneko hori inbertitzekotan 968 milioi euro gehiago inbertitu beharko lituzke.



Eusko Jaurlaritzaren inbertsio publikoa hezkuntza BPGren % 2009-18



Aldiz, urte berberetan, hau da, krisia hasi zenetik hona, zor publikoaren ordainketara bideratu den inbertsioaren ehunekoari (inbertsio guztiarekiko) erreparatzen badiogu, ikusiko dugu bilakaera kontrako norabidean joan dela. Hau da, 2009an inbertsio osoaren %0,8a (83,6 milioi euro) bideratzen zen bitartean, 2018an %11,9a (1346,7 milioi euro) bideratuko da. Beraz, 2018an 2009an baino 1.263 milioi euro gehiago bideratuko ditu Eusko Jaurlaritzak zor publikoaren ordainketara.

Beraz, argi eta garbi ikusten da Eusko Jaurlaritzak krisi urteetan aurrera eramanez duen hezkuntzaren eta bereziki hezkuntza publikoaren deskapitalizazioa kapitalaren mesedetan. Hau da, beste modu batean esanda, nola atera duten dirua ikastetxeetatik banketxeei emateko krisiaren aitzakiarekin. Sortzen dugun aberastasuna (BPGa) gorantz joan den bitartean, hezkuntzan inbertsioak beherantz egin du, eta beraz, aberastasunaren banaketa erabat bidegabe bat egiten ari da Jaurlaritzak.

1.4. Ratioen muturreko politika, ikasleen pilaketa eta ikasgela eta lanpostuen suntsiketa

Zer egin du Eusko Jaurlaritzak krisi urteetan zehar hezkuntza publikoaren deskapitalizazio hau gertatzeko? Aurretik esan moduan, matrikula etengabe gorantz zihoan bitartean, ikasleak geletan pilatu dituzte, sortu beharko liratekeen ikastaldeak aurreztuz, ez sortuz edo murriztuz, eta ratio errealak %9,1 igoz.

Honek, 2009tik 2018ra 973 ikastalderen murrizketa eta ondorioz, 2.388 lanposturen suntsiketa ekarri du berarekin. Hauxe bera izan zen azken bi ikasturteetako asanblada, mobilizazio eta grebetan salatu eta aldarrikatu duguna.

Nola egin du hori Jaurlaritzak? Planifikazioaren eta lege aldaketan bidez ratioen muturreko politika bat eginez. Hau da, ratio maximoak hedatuz, legeaz baliatuz gehienezko ratioen gaineratik ratio errealak %10 gehiago handitzeko, eta kasu askotan guztiz legeaz kanpo ratioak maximoarekiko %10 baino gehiago handituz, edota %10aren barruan baina legea modu iruzurtian aplikatuz (salbuespenak erabili gabe).

1.5. 2018/19 ikasturterako lanpostu zerrenden azterketaren emaitzak lurraldez lurralde. Ikastetxe konkretuetako adibideak.

Lurraldez lurralde eta ikastetxez ikastetxe HH eta LHko lanpostu zerrendetan egin dugun azterketak aurretik esandako guztia berresten dute. Eta atera dezakegun lehen ondorioa da ratioen muturreko politika hau ikastetxeen %100ean aplikatzen dela. Hau da, Jaurlaritzak politika hau zenbakiek ematen dioten ikastetxe guztietan aplikatzeko erabakia hartua duela.

Bestetik, ELAk burutu duen azterketak datu oso zehatzak ematen dizkigu hiru lurraldeetako ikastetxe bakoitza zein egoeratan dagoenaren inguruan.

Horretarako, ikastetxeak lau egoera ezberdinen baitan sailkatu ditugu: legez kanpo salbuespenezko gehienezko ratioen %10a gainditzen dutenak, %10 horren barruan daudenak baina salbuespen hau modu iruzurtian aplikatuz, legearen barruan %10 gehigarri hori aplikatzen ari diren ikastetxeak, eta salbuespenezko %10 hori erabili gabe ere pilaketa ematen den ikastetxeak. Beheko taulan ikus daitezke datu hauek, eta amaierako eranskinean hiru lurraldetako ikastetxe konkretuen adibideak.

	GIPUZKOA	ARABA	BIZKAIA	EAE
%10ETIK GORA DAUDEN IKASTETXEAK	9	7	4	20
%10EAN DAUDEN IKASTETXEAK ERA ILEGALEAN	3	13	23	39
%10EAN DAUDEN IKASTETXEAN ERA LEGALEAN	3	4	5	12
RATIO LEGALAREN BARRUAN MUTURREAN DAUDEN IKASTETXEAN	37	24	55	116
EGOERA ILEGALEAN DAUDEN IKASTETXEA	%11,11	%33,90	%16,07	%17,61
MUTURREKO POLITIKA JASATEN ARI DIREN IKASTETXEAK	%48,15	%81,36	%51,79	%55,82

Beraz, esan bezala, ratioen muturreko politika hau kasu guztietan aplikatzeko erabakia hartuta dago, eta kasu konkretuetara jotzen badugu, egiaztatu dezakegu zuzenean aplikatzeko aukera duten ikastetxe guztietan aplikatzen dutela. Horrela, EAEn legez kanpo dauden ikastetxeak (%10 gehigarria gainditzen dutenak edo %10aren salbuespena modu iruzurtian aplikatzen dutenak) %17,61a dira, eta muturreko politika jasaten ari diren ikastetxeak (%10a erabiliz edo ez) %55,82a.

Lurraldeka begiratzen badugu, Araba da egoera larrienean dagoen lurraldea zentzu honetan, legez kanpo ikastetxeen %33,9a baitaude eta muturreko politika %81,36an pairatzen baita. Bizkaian ikastetxeen %16,07a dago legez kanpo eta %51,79a pilaketa egoeran, eta Gipuzkoan %11,11 legez kanpo eta %48,15a ratioen muturreko politiken pean.


2.-2018/19 IKASTURTEA: EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA POLITIKAREN ESTRATEGIA ALDAKETA ETA 2018KO MAIATZEAN STEILAS, LAB, CCOO ETA UGTK EUSKO JAURLARITZAREKIN SINATUTAKO AKORDIOAREN ERAGINA

2.1. Non izan du eragina akordioak lanpostu sorrerari dagokionez?


Hezkuntza publikoko etapa guztien mapari begiratzen badiogu (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa), ikusiko dugun lehen gauza da, akordioan lanpostuak sortzeko jasotako neurriek oso eragin mugatua izan dutela lanpostuen sorreran. Hau da, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan soilik izan duela eragina.

HH eta LHra joanda ere, eragina oso mugatua izan dela ikusiko dugu, HH3ko laguntza batetara eta HBIra mugatu baita lanpostuen sorrera.



LANGILEEN ZERRENDA. EAEko IKASTETXEEN EGITURA 2018-2019



LANGILEEN ZERRENDA. EAeko IKASTETXEEN EGITURAn 2018-2019 AKORDIAREN ERAGINA



LANGILEEN ZERRENDA. EAeko IKASTETXEEN EGITURAn 2018-2019 AKORDIAREN ERAGINA

HH-LH			
DBH			
Batxilergoa			
Lanbide Heziketa			

Lanpostu Zerrendaren egituran, tutore eta espezialistek (%73) eta kudeaketa kredituek (%16) hartzen dute zati nagusia, hau da, LZ osoaren %89a. Baliabide hauek ikastaldeen (eta proiektuen kasuan lerroen) arabera esleitzen dira eta beraz, Jaurlaritza aplikatzen ari den ratioen muturreko politika hemen ari da eragiten zuzenean, berme legala duten (LZ ofizialaren barnean dauden) lanpostuak suntsituz. Sortu beharko liratekeenak baina ikastalde gutxiago sortzen ditu, horrela tutore, espezialista eta kudeaketa kredituak (laguntza, AKA, Zuzendaritza, IKT eta proiektuak) aurreztuz. Batzuetan tutoretza bikoitzaren ilusioa ere erabili izan du bi ikastalde ez sortzeko, ikastalde baterako bi tutore jarriz baina espezialista eta kudeaketa kredituak aurreztuz.

Lanpostuen gainerako %11a (HIPI, Jantoki eta BHIak...) LZ ofizialetik, edota boletineko LZtik kanpo geratzen dira eta beraz, babesgabetasun egoera batean daude, lanpostu hauek ez baitute berme legalik.

Azken ikasturtean estrategia aldaketa bat detektatu dugu Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza politikan, aurreko paragrafoan azaldutakoarekin zerikusi zuzena duena, eta akordioak lagundu duena. Orain arteko estrategia matrikula gorantz zihoan heinean ikasleak pilatu, ratioak igo eta ikasgelen sorrera eta hauen baitan esleitu beharreko beharrezko lanpostuak aurrezteaz bazen, aurten, datozen urteetako matrikulazioaren beheranzko joera aurreikusita, oraindik ere lanpostu gehiago modu erraz edota legezko batean suntsitu ahal izateko joko zelaia prestatzen ari dela ikusi dugu. Hau da, LZren egitura, edo hobeto esanda, LZren edota bere barneko atalen pisua lanpostuen banaketan aldatzen ari dira. Horrela, aurten aurreko ikasturteetako lanpostu suntsiketa bortitza eman ez bada ere, datozen urteetan egin ahal izateko terrenoa prestatzen ari dira, lanpostuak LZ ofizialetik kanpo atereaz, horrela, lanpostu hauen babesgabetasun egoera bat sortuz. Zentzu honetan, LZ ofizialetik kanpo dauden lanpostu hauek 2018/19 ikasturtean lanpostu guztien %11 suposatzen dute. Estrategia aldaketa hau argi

eta garbi ikusten da eranskinako Bizkaiko ikastetxe batzuetako LZetako adibideetan.

Gainera, hezkuntza publikoko enpleguaz ari garela, esan beharra dago irakasleen artean behin-behinekotasuna %38koa dela. Hori dela eta, ELAtik, baina baita aurreko bi ikasturteetan LAB eta Steilas sindikatuekin batera aurrera eraman genituen greba eta mobilizazioetan ere, behin-behinekotasuna %6ra jaisteko kontsolidazio EPEak aldarrikatzen genituen. Alde batetik, Jaurlaritzak hemen beste tranpa bat egiten du, izan ere, EPEra atera ezin diren lanpostu horiek, hau da, LZ ofizialetik kanpokoak, ez ditu kontutan hartzen behin-behinekotasun hau neurtzerako garaian, datua faltsutuz. Bestetik, eta larriagoa dena, Jaurlaritzaren lanpostuak LZ ofizialetik kanporatzeko estrategia aldaketa honek ezinezko egiten du behin-behinekotasuna %6ra jaistea eta lanpostuak kontsolidatzea, lanpostuen %11 ezin baitira EPEra atera ez daudelako LZ ofizialaren barruan. Eta datozen urteetan estrategia berarekin jarraituz gero, behin-behinekotasuna eta babesgabetasuna geroz eta handiagoa izango da, hau da, gero eta enplegu prekarioagoaz ariko gara hezkuntza publikoan.

2018ko maiatzean ELArekin batera greba eta mobilizazio dinamika sustatu zuten LAB eta Steilas sindikatuek, CCOO eta UGT sindikatuekin batera Eusko Jaurlaritzarekin sinatu zuten akordioak sorturiko lanpostuak, egitura honetan guztian HH3ko laguntza batetara eta LZtik kanpo dagoen HBIra (eta hemen sortu dira lanpostu gehien) mugatzen dira.

2.2. EJren ratio politikan ez du eraginik izan. Lanpostuak suntsitzen jarraitu dute.

Esan bezala, 2018ko maiatzeko akordioak ez du eraginik izan tutore eta espezialistek osatzen duten blokean, eta eragin minimoa izan du kudeaketa kredituetan (laguntza bat HH3n). Hau da, ez dio apenas eragin baliabideak

ikastaldean baitan esleitzen diren blokeari. Alegia, Eusko Jaurlaritzak murrizketak aplikatzen dituen eta lanpostuen %89a suposatzen duen blokeari, eta ELAren ustetan hemen kokatzen da arazoaren muina, ratioen muturreko politika honen baitan aplikatzen baita.

Beraz, akordioak, alde batetik bermea duten lanpostuak suntsitzen diren LZren nukleoan oso eragin txikia izan du, eta bestetik, ez dio toperik jarri lanpostu suntsiketari edota ez du mugatu inolaz ere ratioen muturreko politikaren aplikazioa. Eta gainera, ikasturte honetan, Eusko Jaurlaritzari eskuak libre utzi zaizkio lanpostuak LZtik kanpo ateratzeko estrategia abian jartzeko.

2.3. Akordioaren ondorioz sorturiko lanpostuen ezaugarriak

Esan bezala, akordioak oso eragin mugatua izan du lanpostuen sorreran. Gure azterketaren arabera, 188,08 lanpostu sortu ditu EAE osoan HH3 eta HBIn. HH3n 58,5 eta HBIn 129,58. Beraz, lehenengo konklusioa da aurreko bi ikasturteetan egindako greba eta mobilizazioetan aldarrikatzen genituen 1.800 lanpostuetatik oso urrun dagoela zifra hau, aldarrikatzen genuenaren %10a besterik ez baitu suposatzen.

Eta bigarrenik, nolako lanpostuak sortzea ahalbidetu du akordio honek? HH3rako sortu diren 58,5 lanpostu hauek laguntza baliabideetan kokatzen dira, %72,73 partzialak dira eta behin-behinekoak. HBIn rako sortu diren 129,58 lanpostuak LZ ofizialetik kanpo kokatzen dira (honek sortzen duen babesgabatasunarekin), %41,27ean partzialak dira, behin-behinekoak eta gainera baliabide hauek esleitzerako garaian erabiltzen diren irizpideak gardentasun falta izugarria daukate. Hau da, akordioaren bidez sortu diren lanpostuak prekarioak dira.

Hots, alde batetik, ratio errealak krisi aurretik zeuden zifretan mantentzeko sortu beharreko 2.388 lanpostuetatik oso urrun daude akordioaren bidez sortutako 188,08 lanpostuak. Bestetik, sortutako lanpostuak prekarioak dira eta gehienak LZ ofizialetik kanpo daude (HBIkoak+HH3ko batzuk). Eta azkenik, lanpostu prekario hauek, berriz ere hezkuntza publikoko sektore feminizatuenei eragin diete.

2.4. Akordioak lanpostuetan izan duen eragin globala

Beraz, ELAren ustetan akordioak ez du ratioen muturreko politikan eraginik izan eta ez du hau mugatu. Arazoaren muina ez du ukitu, eta aldiz, sektore feminizatuenetan lanpostu prekarioak sortzea ekarri du lanpostuen inguruan egin duen saiakera antzu honek.

Azkenik, eta hau guztia esan ondoren, zein izan da lanpostuetan honek guztiak izan duen eragin globala? Hau da, zenbat eta nolako lanpostuak sortu dira 2018/19 ikasturtean?

2017/18 eta 2018/19 ikasturteetako LZk alderatzen baditugu, ikusiko dugu 175,92 lanpostu sortu direla, hau da, sortzea beharrezko ikusten dugun 2.388 lanpostu horien %7,4a suposatuko luketena, eta hezkuntza publikoko lanpostu guztien %0,7a suposatzen dutena.

Baina gainera, lanpostu hauek ez dira guk exijitzen ditugun bermedun eta LZ ofizialaren barneko lanpostuak. Izan ere, LZren egiturari dagokionean, sortutako 175,92 lanpostu horien %97,73a (171,92 lanpostu) bermerik gabeko lanpostuak, babesgabeak edota LZ ofizialetik kanpokoak dira. Eta soilik 4 lanpostu dira, hau da, sorturiko lanpostuen %2,27a, LZ ofizialaren barneko lanpostuak edota bermea duten lanpostuak.

	2017-2018		2018-2019	
	Berme gabekoak	Bermedunak	Berme gabekoak	Bermedunak
Atxondo HLHI	%5,82	%94,18	%22,00	%78,00
Urregarai HLHI	%9,36	%90,64	%26,21	%73,79
Ing. Jose Orbegozo HLHI	%2,44	%97,56	%25,58	%74,42
San Ignacio HLHI	%11,87	%88,13	%24,22	%75,89

Eta azkenik, bermerik gabeko lanpostuak izateaz gain, lanpostu prekarioak dira. Hau da, behin-behinekoak dira, gehienak EPEra atera ezin direnak (hau da, beti izango dira behin behinekoak LZ ofizialera sartu ezean), eta %54,21ean partzialak.

3.-ELAREN PROPOSAMENA

3.1. Ratioak jaitsi eta beharrezko ikastalde eta lanpostuak sortu behar dira.

ELAren ustetan, benetako arazoa ikastaldeen baitan esleitzen diren LZko lanpostuen %89 horretan kokatzen da bereziki, hor suntsitzen baititu Eusko Jaurlaritzak legezko bermea duten lanpostuak ikasleak pilatuz eta ikastaldeak ez sortuz. Eta beraz, gure proposamena hori mugatzea litzateke beharrezko ikastalde eta lanpostuak sortuz eta ratioak jaitsiz.

Horretarako, neurri zehatz bat proposatzen dugu ELA sindikatutik. Ratioak tarte bat dira, eta ez zenbaki maximo bat. Tarte horrek maximo eta minimo bat dauka eta eskoletako ratio erreala hor erdian kokatu behar da. Eta ez ahal den guztietan maximoan, irizpide ekonomikoa lehenetsiz beti. Horixe da Jaurlaritzaren politika.

Baina zer ari da gertatzen? Eusko Jaurlaritzak ratioen muturreko politika egitea erabaki duela, eta beraz, ikastaldeak osatzeko momentuan, maximo horietatik abiatzen dela. Hortaz, ratio tarte horren gehiengotik abiatuta, marjina gehigarri bat behar du, bai legea modu iruzurtian aplikatuz gehienezko ratio muga hori hasieratik gainditzeko (eta ez ikastalde berri bat sortu behar izateko), baita behin kurtsoa hasita iristen diren ikasleak ikastalde horietan txertatzeko ere. Horretarako moldatu dituzte legeak, hain zuzen ere, marjina gehigarri hau gero eta zabalagoa bihurtzeko.

Baina ratioa tarte bat bada, zergatik jarri tarte gehigarri bat? ELAren ustetan marjina gehigarri honek desagertu egin beharko luke, ratioen tarteak minimo eta maximoen barnean ratio erreala kokatzeko aukera ematen baitu. Baina honek erabaki politiko bat eskatzen du, Ratioen politika ezberdin bat, ikastaldeak minimotik ahalik eta gertuen sortuko dituen hasieratik, behin kurtsoa hasita iristen diren ikasleak ikastalde hauetan txertatu ahal izateko ratio maximoak gainditu gabe.

Beraz, ELAren proposamena zentzu honetan oso zehatza da: ratio maximoa %10ean gainditzea posible egiten duten dekretuak bertan behera uztea, gehienezko ratioak jaiste eta beharrezkoak diren 973 ikastalde eta 2.388 lanpostuak sortzea ratioen inguruko beste politika bat egiteko, ikastetxeetako ratio errealak jaiste ahalbidetuko duena.

3.2. LZtik kanpo dauden lanpostuak LZn sartzeko neurriak

Lanpostuen %11 suposatzen duten hainbat lanpostu (BHI, HIPI, jantokietako lanpostuak...) Buletineko LZn txertatzea exijitzen diogu Jaurlaritzari. Izan ere, lanpostu hauek “funtzionamenduzko LZ” deritzonean soilik agertzen dira. Dokumentu hau ez da ofiziala, eta beraz, legezko babesgabetasun izugarria sortzen du lanpostu hauentzat.

Beraz, ELA sindikatuak, lanpostuak LZ ofizialetik ateratzeko bere estrategia berehala bertan behera utzi eta lanpostu guztiak LZ ofizialean txertatu ditzala exijitzen diogu hezkuntza sailari.

3.3. Gardentasuna eta zehaztasun maila handiagoa lanpostuen esleipenerako arauetan

Batetik, gardentasun eta zehaztasun falta izugarria dago baliabide batzuk esleitzerako garaian (PTE, ALE, BHI...) eta gardentasun falta honek ere, lanpostuen suntsiketa ekartzen du, irizpideak ez baitaude garbi.

Bestetik, arau batzuk garatuta ez egoteak barne irizpideen baitako kudeaketa dakar, inon onartu ez direnak eta lanpostu askoren suntsiketa suposatzen dutenak.

Beraz, ELAtik baliabide hauek esleitzeko garaian kontutan hartuko diren irizpideen gardentasuna eta zehaztasuna exijitzen diogu Eusko Jaurlaritzari.

3.4. Ikastetxeen eta langileen antolatzeko eta mobilizatzeko premia

Azkenik, krisiaren aitzakia erabiliz Eusko Jaurlaritzak aplikaturiko murrizketa guztiei buelta emateko eta bereziki lanpostu suntsiketa eta ratioen igoera ekarri duen muturreko politika honi aurre egin eta bestelako politika bat exijitzeko ELAtik hezkuntza publikoko langile guztiei antolatzeko eta mobilizatzeko deia luzatzen diegu. Eta ELArekin batera pasa den bi ikasturteetan greba eta mobilizazioak sustatu zituzten LAB eta STEILAS sindikatuak elkarrekin agenda mobilizatzailea berreskuratzeko deia luzatzen diegu.

ERANSKINA

RPT 2018 - 2019 LZ
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA - EDUCACION INFANTIL Y PRIMARIA

CEIP ATXONDO HLHI

ATXONDO

014452

	A	B	D
HH/INF		2	2
I		1	1
II		1	1
III		1	1
		5	5

HB2/EE2	
HB1/EE1	

	HH INF	LH PRI	EUS EUS	ING ING	FRA FRA	GHE EFI	MUS MUS	KON CON	IML CPC	GUZ TOT
2 B / V	2	2	-	1	-	1	1	-	-	7
1 B / V	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
1 DG / SF	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
	Guztira/Total									7

PTE	ENM
PTE	ALE
-	-
-	-
-	-
-	-
-	

LZ kanpokoak/Fuera de RPT

	HE/PL	D/F	Z/Nº
Eleaniztasunerantz			-
Eskolaz kanpok/Extraescolares			-
Jantokia-boltsakoa/Comedor-bolsa			-
Jantokia-ikastetxea/Comedor-centro	2	V	-
Zuz. laguntza/Ayuda dirección			-
Erijo Katolikoa/Religión Católica			-
Kulturartekotasuna/Interculturalidad			-
HIP/PRL			-
CONSULTOR	2	V	1,00
PTE	2	V	1,00
			-
			-
			-

Guztira/Total **+2,00**

INGLES+TUTORIA PRIMARIA
ED. FISICA +PRIMARIA
1 PRIMARIA (0,50 COMEDOR + ZUZENDARITZA)
.MUSICA + TUTORIA DE PRIMARIA
* CONSULTOR + APOYO
* PTE + APOYO
.

Ibiltariak/Itinerantes

	HE/PL	D/F	+/-	Oharra/Notas
HB/EE			-	
			-	
			-	
Guztira/Total				-
Best./Otros	E. KAT.	2	V	+0,09
			-	Elorio (5h).
			-	
Guztira/Total				+0,09

	HH / INF					GUZ TOT	LH / PRI						GUZ TOT	HB2 EE2	HB1 EE1	GUZ TOT
	0	1	2	3	4		5	1º	2º	3º	4º	5º				
A																
B																
D		7	11	5	6	29	11	5	3	7	9	6	41			70
		1		1		2	1		1		1		3			6
		7	11	5	6	29	11	5	3	7	9	6	41			70
		1		1		2	1		1		1		3			6

Irakasleak Guztira	
Total Profesorado	9,09

RPT 2018 - 2019 LZ
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA - EDUCACION INFANTIL Y PRIMARIA

CEIP URREGARAI HLHI

AULESTI

014369

	A	B	D
HH/INF		2	2
I		1	1
II		1	1
III		1	1
		5	5
HB2/EE2			
HB1/EE1			

	HH INF	LH PRI	EUS EUS	ING ING	FRA FRA	GHE EFI	MUS MUS	KON CON	IML CPC	GUZ TOT
2 B / V	2	3	-	1	-	-	1	-	-	7
1 B / V	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
1 DG / SF	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
	Guztira/Total									7

PTE	ENM ALE
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-

LZ kanpokoak/Fuera de RPT

	HE/PL	D/F	Z/Nº
Eleaniztasunerantz			-
Eskolaz kanpok/Extraescolares			-
Jantokia-boltsakoa/Comedor-bolsa			-
Jantokia-ikastetxea/Comedor-centro	2	V	0,50
Zuz. laguntza/Ayuda dirección			-
Erijiro Katolikoa/Religión Católica			-
Kulturartekotasuna/Interculturalidad			-
HIPI/PRL	2	V	0,33
	2	V	-
CONSULTOR	2	V	0,50
ED FISICA	2	V	0,50
PTE	2	v	0,50
CONCESION	2	V	0,17

 Guztira/Total **+2,50**

INGLES +0,50 AP. < 8 GRUPOS
MUSICA + DIRECCION ESTABLE +APOYO 2 AÑOS
* CONSULTOR +0,50 COMEDOR
.* ED FISICA (0,50) +PRL (0,33)+0,17CONCESION
.
.
.

Ibiltariak/Itinerantes

HB/EE	HE/PL	D/F	+/-	Oharrak/Notas
			-	
			-	
			-	

 Guztira/Total **-**

Best./Otros	E. KAT.			+/-	Oharrak/Notas
	2	V		+0,04	Berriatua (4h)
				-	
				-	

 Guztira/Total **+0,04**

	HH / INF					GUZ TOT	LH / PRI						GUZ TOT	HB2 EE2	HB1 EE1	GUZ TOT
	0	1	2	3	4		5	1º	2º	3º	4º	5º				
A																
B																
D			6	6	6	6	24	5	4	5	4	4	7	29		53
			1		1		2	1		1		1		3		6
			6	6	6	6	24	5	4	5	4	4	7	29		53
			1		1		2	1		1		1		3		6

Irakasleak Guztira
Total Profesorado **9,54**

RPT 2018 -2019 LZ
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA - EDUCACION INFANTIL Y PRIMARIA

CEIP ING. JOSE ORBEGOZO GOROSTIDI HLHI

BILBAO

014123

	A	B	D
HH/INF			2
I		1	
II		1	
III		1	
	3	2	5
HB2/EE2			
HB1/EE1		1	

	2 B / V	1 B / V	1 DG / SF
2 B / V	2	2	-
1 B / V	-	1	-
1 DG / SF	-	-	-
Guztira/Total	6	1	-

HH	LH	EUS	ING	FRA	GHE	MUS	KON	IML	GUZ
INF	PRI	EUS	ING	FRA	EFL	MUS	CON	CPC	TOT
2	2	-	1	-	-	1	-	-	6
-	1	-	-	-	-	-	-	-	1
-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Guztira/Total	7								

PTE	ENM
PTE	ALE
1	-
-	-
-	-
1	

LZ kanpokoak/Fuera de RPT

	HE/PL	D/F	Z/Nº
Eleaniztasunerantz			-
Eskolaz kanpok/Extraescolares			-
Jantokia-boltsakoa/Comedor-bolsa			-
Jantokia-ikastetxea/Comedor-centro	2	V	0,50
Zuz. laguntza/Ayuda dirección			-
Erligio Katolikoa/Religión Católica	2	V	0,25
Kulturartekotasuna/Interculturalidad			-
HIPI/PRL			-
HAMAIIKA ESKU+ INE	2	V	1,00
CONSULTOR	2	V	0,50
APOPYO < 8 GRUPOS	2	V	0,50
			-
			-

Guztira/Total **+2,75**

INGLES +0,50 AP. 2 AÑOS
MUSICA +ED FISICA + DIRECCION
*PLAZA DE CONSULTOR +0,50 COMEDOR(director Inñigo Zubeldia Ortuño)
* 0,50 (RATIO < 8 GRUPOS) INGLES
* PLAZA DE H. ESKU + INE : PRIMARIA
.
.

Ibiltariak/Itinerantes

	HE/PL	D/F	+/-	Oharrak/Notas
HB/EE			-	
			-	
			-	
Guztira/Total				-
Best/Otros			-	
			-	
			-	
Guztira/Total				-

	HH / INF					GUZ TOT	LH / PRI						GUZ TOT	HB2 EE2	HB1 EE1	GUZ TOT
	0	1	2	3	4		5	1º	2º	3º	4º	5º				
A																
B							6	7	5	4	5	9	36			36
D			2	4	8	1	15								1	15
			1		1		2									3
			2	4	8	1	15	6	7	5	4	5	36			51
			1		1		2	1	1	1	1	3		1	8	

Irakasleak Guztira
Total Profesorado **10,75**

RPT 2018 - 2019 LZ
 HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA - EDUCACION INFANTIL Y PRIMARIA

CEIP SAN IGNACIO HLHI

 GETXO
 014294

	A	B	D	
HH/INF	3		3	6
I	1	1		2
II	1	1		2
III	2	1		3
	7	6		13
HB2/EE2				
HB1/EE1		1		

	HH INF	LH PRI	EUS EUS	ING ING	FRA FRA	GHE EFI	MUS MUS	KON CON	IML CPC	GUZ TOT
2 B / V	3	3	1	2	-	1	1	1	1	13
1 B / V	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
1 DG / SF	3	4	-	-	-	-	-	-	-	7
	Guztira/Total									20

PTE	ENM ALE
1	-
-	-
-	-
1	

LZ kanpokoak/Fuera de RPT

	HE/PL	D/F	Z/Nº
Eleaniztasunerantz			-
Eskolaz kanpok/Extraescolares			1,00
Jantokia-boitsakoa/Comedor-bolsa			-
Jantokia-ikastetxea/Comedor-centro			0,50
Zuz. laguntza/Ayuda dirección			-
Erlijio Katolikoa/Religión Católica	1	SF	0,66
Kulturartekotasuna/Interculturalidad			-
HIP/PRL	2	V	1,00
EGA	2	V	0,50
PTE	2	V	0,50
INE	2	V	2,00
APOYO 2 AÑOS	2	v	0,50
			-
	Guztira/Total		+6,66

1 APOYO EQUIPO DIRECTIVO
MUSICA +0,50 prl
INGLES Y ED. FISICA DIRECCION 4 AÑOS Y GEST EDUCATIVA
* 0,50 COMEDOR : INGLES PL2V
* PLAZA DE INFANTIL : 0,50 EGA+0,50 AP. 2 AÑOS
* 2 PLAZAS INE : PRIMARIA PL2V.
PRL : AGURTZANE MARTITEGI

Ibiltariak/Itinerantes

	HE/PL	D/F	+/-	Oharrak/Notas	
HB/EE			-		
			-		
			-		
	Guztira/Total			-	
Best./Otros	E. KAT.	1	S/F	-0,26	Larrañazubi (8h).
	E. KAT.	2	V	+0,22	Albiz (8h).
			-		
	Guztira/Total			-0,04	

	HH / INF					GUZ TOT	LH / PRI						GUZ TOT	HB2 EE2	HB1 EE1	GUZ TOT
	0	1	2	3	4		5	1º	2º	3º	4º	5º				
A		10	11	8	5	34	9	7	3	13	16	23	71			105
B		1	1	1		3	1		1		1	1	4			7
D		17	10	10	7	44	3	7	10	2	6	5	33		1	77
		1	1	1		3	1		1		1		3			7
		27	21	18	12	78	12	14	13	15	22	28	104			182
		2	2	2		6	2		2		2	1	7	1		14

 Irakasleak Guztira
 Total Profesorado **27,62**

GLOSARIOA

Ratio: Hezkuntzan ratioa ikasle kopuruaren eta ikastaldeen arteko erlazioari esaten zaio.

Ikasle berantiarra: Ikasturtea hasita dagoela eskolarizatzen den ikaslea.

Langileen zerrenda (LZ): Eskola Publikoan dauden lanpostuak. Langileen Zerrenda ikastetxez ikastetxe eratzen da eta LZ osoa Ikastetxe publiko guztien lanpostuen baturaren emaitza da.

Boletineko LZ edo LZ ofiziala: EHAAn publikatzen diren Eskola Publikoko lanpostuak.

LZ kanpokoak: EHAAn publikatzen ez diren Eskola Publikoko lanpostuak.

Kudeaketa kredituak: Ikastetxetan irakasteaz gain egin beharreko lanak hornitzeko lanpostuak.

HH3 laguntza: Haur Hezkuntzako hiru urtetako gelarako laguntza lanpostua.

HBI: Hezkuntza Beharren Indizea

Laguntza: Tutore lanak laguntzeko lanpostuak.

AKA: Administrazio Kudeaketaren Arduraduna.

IKT: Informazio eta Komunikazio Teknologiak. Proiektu hau aurrera eramateko lanpostu partzialak sortzen ditu Departamenduak.

Proiektuak: Beste proiektu batzuegatik jasotako kredituak.

HIPI: Hizkuntza Indartzeko Proiekturako Irakaslea

Jantoki: Jantokiko Arduraduna. Irakasle bat izaten da.

EPE: Enplegu Eskaintza Publikoa

PTE: Pedagogia Terapeutikorako irakaslek

ALE: Entzumena eta Hizkuntzarako irakasleak